



OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza

*Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud

Dirección de Salud Pública y Adicciones

***HILTEGITIK KANPO PREMIAZ HILDAKO
ETXEKO UNGULATUETATIK
ERATORRITAKO HARAGIA:
JARDUNBIDEAK. MERKATURATZEKO
EREMUA***



1. HITZAURREA

Animalien ongizatearen arloan indarrean dagoen araudiaren aplikazioak sufritzen ari diren animaliak lekualdatzeko debekua ezartzen du, eta animalia horiek hiltegitik kanpo hiltzeko aukera ematen du.

Hilketa humanitaria arautu eta haragi horiek giza kontsumorako baldintza higienikoetan hiltzeko instrukzio hau idatzi da.

Abeltzaintzako ustiatégian istripua izan duen animaliatik eratorritako haragia lortzeko lan-jarraibideak ezartzen ditu. Gainera, merkaturatzeko eremu geografikoa zehazten du.

Lehenengo, eta Animalien Ongizateari buruzko printzipioak betez, animalia hori hiltegitara eraman daitekeen edo *in situ* ustiatégian bertan hiltzea hautatu behar den balioetsi behar da.

Balorazioa azkar eta kasu hauetan araudiak ezartzen dituen baldintzak betez egin behar da.

Instrukzio hau aplikatzeak eraginik gabe uzten du EAEko hiltegitan orain arte aplikatzen zen 3/2009 Instrukzioa.

2. HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

EAEko abeltzaintzako ustiatégietan premiaz hildako etxeko unglatuen haragia aprobetxatzeko baldintzak zehaztea, giza kontsumorako egokiak izan daitezen bermatzeko.

3. LEGE-ERREFERENTZIAK

- 348/2000 Errege Dekretua, martxoren 10ekoa, abeltzaintzako ustiatégietan animaliak babesteari buruzko 98/58/EE Zuzentaraua ordenamendu juridikoan sartu duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 853/2004 Erregelamendua, 2004ko apirilaren 29koa, animalia-jatorriko elikagaien higienari buruzko arauak ezartzen dituena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 854/2004 Erregelamendua, 2004ko apirilaren 29koa, giza kontsumorako animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak antolatzeke arau espezifikoak ezartzen dituena.
- Kontseiluaren 1/2005 Erregelamendua (EE), 2004ko abenduaren 22koa, animaliak garraioan babesteari buruzkoa.
- 640/2006 Errege Dekretua, maiatzaren 26koa, elikagaien higienaren, ekoizpenaren eta merkaturatzearen arloan Europar Batasuneko xedapenak aplikatzeko hainbat baldintza arautzen dituena.
- 361/2009 Errege Dekretua, martxoaren 20koa, hiltegitara eramaten diren animaliekin batera elikakateari buruz aurkeztu beharreko informazioa arautzen duena.
- 1099/2009 (EE) Erregelamendua, irailaren 24koa, animaliak hiltzeko unean haien babesteari buruzkoa.

- 37/2014 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, animaliak hiltzeko unean haien babesteari buruzko alderdiak arautzen dituena.
- Batzordearen 218/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko martxoaren 7koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 853/2004 (EE) eta 854/2004 (EE) Erregelamenduetako eta Batzordearen 2074/2005 (EE) Erregelamenduko eranskinak aldatzen dituena.

4. GARAPENA

4.1. Garraiatzeko egokitasuna

Abeltzaintzako ustategian premiaz hildako etxeko unglatuak hiltegiara eraman ahalko dira, istripua izan duten animalia osasuntsuak badira eta animalia ongizateagatik hiltegiara eraman ezin badira.

Garraiatu daitezkeen animaliak zeintzuk diren argi zehaztu ahal izateko, 1/2005 Erregelamendua eta *Behi helduak garraiatzeko egokitasuna ebaluatzeko gidaliburu praktikoak*, besteak beste FVEk (Federation of Veterinarians of Europe), egindako gidaliburuak ezartzen dituzten irizpideak aplikatuko dira.

A) Garraiatu daitezkeen animaliak:

Animalia hauek garraiatu ahal izango dira: arazo fisiologiko edo prozesu patologikorik edo zauririk ez duten animaliak, lesio edo gaixotasun arina izan arren beharrezkoa ez den sufrimendu gehigarririk jasan gabe bidaiatu dezaketenak.

B) Baldintzekin garraiatu daitezkeen animaliak:

- B.1. Garraiatu daitezkeen animaliak izango dira lesio eta gaixotasun arinak dituzten animaliak, garraiatzeak beren egoera larriagotzen ez badu. Horri buruzko zalantzaren bat izanez gero, aholkua eskatuko zaio albaitariari.
- B.2. Atal honetan abeltzaintzako jardunekin lotutako albaitari-ebakuntza (adarrak kentzea, kastrazioa) egin zaien animaliak ere sartzen dira, zauriak orbainduta badituzte. Baita animalia begibakarrak edo itsuak ere.
- B.3. Azkenik, albaitariak gainbegiratuta edo diagnostikatuta garraiatzen diren animaliak (1/2005 Erregelamenduaren Eranskinen I. Kapituluko 3 c puntua izan ezik), lekualdaketak garraiatuko den animalia beharrezkoa ez den sufrimendu gehigarrikeragiten ez baldin badio, adibidez garraioak animalia horrek gainerako animalien gainetik isolatuta bidaiatzea bermatzen ez badu, edo bidaiak bi ordu baino gehiago irauten baldin badu. Ustategiko albaitariak animaliak garraiatzeko egokia dela uste badu deskribatutako baldintzak betetzen direlako, animalia txostena egingo du animaliarekin batera hiltegiara bidaltzeko. Bertan, jasotako tratamendua eta hartzeko epea, diagnostikoa, denbora, garraiatzeko distantzia eta baldintzak eta garraiatzeko egokitasuna errespetatu diren adieraziko da.

C) Inola ere garraiatu EZIN DAITEZKEEN animaliak:

- Minik edo laguntzarik gabe ibili ezin daitezkeen animaliak, altxatzeko gai edo zutik egoteko gai ez diren eroritako animaliak.
- Inkoordinazio orokortua duten animaliak.

- Mugitzerakoan min bizia duten animaliak, gorputz-adarra edo pelbisa apurtuta dutenak.
- Herrenka dabilzan animaliak (hanketako batean pisua jarri ezin dutenak), lokadurak dituztenak.
- Zauri larriak, sakonak dituzten animaliak:
 - Barrunbe toraziko edo sabelalde-barrunbeko zauriak, zaurietan barneko organoak ikus daitezkeenean.
 - Ebakuntza kirurgikoak sortutako zauri irekiak.
 - Zauri zabala, irekia eta zoldua, azalean, muskuluetan edo mukosetan.
- Odoljario handiak dituzten animaliak.
- Ondesteko edo baginako kolapsoa duten animaliak.
- Adarra kendu edo kastratutako animaliak eta zauriak orbaindu gabe dauzkatena.
- Arnasketa zaila duten meteorismodun animaliak, baita zirkulazio-arazoak dituztenak ere.
- Duten egoeragatik garraiatu ezin daitezkeen animaliak, inola ere bidaiatu ezin dezaketena:
 - Gutxienez, aurreikusitako ernaldi-denboraren % 90 gainditu duten eme ernariak, edo aurreko astean umea izan duten emeak.
 - Zilborra guztiz orbaindu gabe duten ugaztun jaioberriak.
 - Plazenta ikusteko moduan duten animaliak.
 - Hiru aste baino gutxiagoko txerrikumeak, astebete baino gutxiagoko arkumeak eta hamar egun baino gutxiagoko txahalak, distantzia 100 km baino laburragoa ez bada.
- Animalia gaixoak (*):
 - Nahasmendu sistemiko larriak dituzten animaliak (nerbio-sistemako nahasmenduak, intoxikazioak, etab.)
 - Inflamazio akutu larriak dituzten animaliak: mastitisa, pneumoniak, abzesuak, gastroenteritisa.
- Animalia zaharrak, honako kasu hauetan (*):
 - Beren kabuz mugitu ezin daitezkeenean.
 - Sukarra, infekzio edo infestazio orokortuak dituztenean.
 - Kakexia, muturreko argaltasuna (ahultasuna) dutenean.

(*) Animalia hauek ez dira egokiak giza kontsumorako; beraz, ezin izango dira hiltegia eraman ustiatzean hil ondoren.

4.2. Premiazko hilketa ustiattegian

4.1.C) puntuan deskribatutako prozesuak dituzten animaliak ustiattegian premiaz hil daitezke, prozesu horiek hiltegiara eramatea galarazten badute, betiere animalia-aren ongizateari buruzko printzipioak kontuan hartuz. Jakina, aipatutako «animalia gaixoak» eta «animalia zaharrak» ustiattegian hil ahalko dira, baina ezin izango dira hiltegiara eraman, ez baitira egokiak giza kontsumorako.

Horretarako, abeltzainak jardun klinikoko al baitariari galdetuko dio eta al baitariak erabakiko du animalia hiltegiara eraman daitekeen edo ez.

Ustiattegian hiltzeko baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu ostean, honako hauek bete beharko dira:

1. hilketa.

Lanbidearen jardun klinikoko al baitariak gainbegiratuta burutuko da. Al baitariak animalia-aren *ante-mortem* ikuskapena egin eta I. Eranskineko Al baitariaren Adierazpenaren eredia beteko du. *Ante-mortem* ikuskapenerako, aplikatu beharreko legedian (853/2004 eta 854/2004 Erregelamenduak) ezarritakoa beteko da, eta honako hau hartuko da kontuan:

- Animalia-aren identifikazioa: hilko den animaliak behar bezala identifikatuta egon behar du.
- Animalia-aren garbitasuna baloratzea: Zikinkeria-egoera onargarria ez bada, hil aurretik animalia garbitu daiteke, edo giza kontsumorako hiltzeko ez dela egokia erabakiko da.
- Osasun-egoeraren balorazioa, animalietatik gizakietara transmititzen diren gaixotasunei (zoonosia) edo beste animalia batzuetara transmititzen diren gaixotasunei (OIEren zerrenda) dagokienez.
- Gorputzaren tenperatura eta arnas mugimenduak egiaztatzea, gaixotasunaren edo egoera fisiologikoaren asalduraren zantzuak modu objektiboan hartzeko bi parametro baitira.

Animalia giza kontsumorako hiltzeko desegokitzat jotzeko arrazoiak honako hauek dira:

- Animalia gaixoak: nahasmendu sistemiko larriak dituzten animaliak dira (nerbio-sistemako nahasmenduak, intoxikazioak, etab.); halaber, inflamazio akutu larriak dituzten animaliak (mastitisa, pneumoniak, abzesuak, gastroenteritisa).
- Beren kabuz mugitu ezin daitezkeen animaliak, sukarra, infekzio edo infestazio orokortuak dituztenak, kakexia, muturreko argaltasuna (ahultasuna) dutenak.
- Hilzorian dauden animaliak.
- Behien Entzefalopatia Espongiformearekin (BEE) bat datozen sintomak dituzten behiak eta ikara duten ardiak/ahuntzak.
- Arrazoi ezezagunengatik etzanda dauden animaliak eta orokorrean egoera txarrean daudenak.
- Tratamenduaren itxaronaldia errespetatu ez duten animaliak edo substantzia debekatuekin tratatuak.

2. Hiltegitik kanpo premiazko hilketa dokumentu bidez jasotzea.

Animalia hiltegitik kanpo hiltzen denean, animalia jabeak edo hezitzaileak hilketa hori erregistratuko du Ustiategiaren Erregistroan, erabilitako zorabiatzeko eta hiltzeko erabilitako metodoa. Ohar hori gutxienez hiru urtetan zehar egongo da Erregistroan.

3. Hiltzeko baldintzak.

Ikusapenean eta animalia zorabiatzeko unean animalia ongizateari buruzko arauak errespetatuko dira, eta gaitasun-maila (ziurtagiriaren bidez egiaztatua) egokia duen pertsonak bakarrik burutuko ditu, animalia ekidin daitekeen min, estutasun edo sufrimendurik ez eragiteko.

Animalia maneiatu edo eusteko EZIN IZANGO DIRA honako jardunbide hauek erabili edo burutu:

- Hankak edo apatxak mekanikoki lotu edo estutu.
- Kordean dauden animaliak zintzilikatu edo jaso.
- Ornomuina ebaki (adb. sastakai edo eztenarekin).
- Eusteko korrante elektrikoa erabili.
- Animaliak jo.
- Animaliak burutik, belarrietatik, adarretatik, hanketatik eta buztanetik eutsiz jaso edo arrastaka eramanean, edo oro har, gorputzaren edozein zati estutu edo mina edo sufrimendua eragiteko moduan maneiatu.
- Akuilu-eztenak edo tresna zorrotzak erabili.
- Deskarga elektrikoak ematen dituzten elementuak erabiltzen badira, behi eta txerri helduekin bakarrik erabiliko dira, eta beti segundo batean, atzealdeko laurdenean eman ez eta behin eta berriz eman gabe.
- Animalia ibili ezin bada, ez da hiltzeko lekuraino arrastaka eramango, etzanda dagoen lekuan bertan zorabiatuko da.

Animalia zorabiatu ostean hilko da. Hil arte, animalia korde eta sentsibilitaterik gabe egongo da. Zorabiatzeko metodoak arauzkoak izango dira.

Animalia zorabiatu ostean, higienikoki odolustuko da eta horretarako aitzo ezberdinak erabiliko dira, bat larrua ebakitzeko eta beste bat odola ateratzeko.

Odola ontzi batean jasoko da, identifikatu eta hiltegitik bidaliko da animaliarekin batera haragien giza kontsumorako egokitasun-irizpena osatzeko.

Hil eta hiltegitik heldu arte ezin izango dira bi ordu baino gehiago igaro haragia hoztu gabe.

4. Hiltegitik garraiatzeko baldintzak.

Hildako animalia garraio bidean sartu aurretik, animalia garbi eta desinfektatuta, estanko eta eguraldi txarretik babestuta dagoela egiaztatuta behar da.

Garraio bidean kokatu ostean, komenigarria izan liteke sabel-lerro zurian irekidura egitea sabelaren distentsiorako, baina hesteak atera gabe.

Animaliarekin batera dokumentu hauek bidali behar dira hiltegitik:

- Ustiategiko arduradunaren erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina).
- Albaitariaren adierazpena (I. eranskina).
- Elika-kateari buruzko informazioa (EI).
- Animalia-aren Identifikazio-agiria.

4.3. Hiltegi-aren jarduteko modua.

1. Hiltegi-ko operadore ekonomikoak behar besteko aurrerapenarekin jakin behar du, lanak gerorako utzi gabe antola ditzan.
2. Hiltegi-ak animalia guztiak zuzenean odolusteko eremura sartu ahal izateko instalazioak izan behar ditu, korta edo eremu garbietatik igaro gabe. Abelburua behar bezala jasotzeko bitartekoak edo ekipamendua eduki behar ditu, hots, hilketa-lantegi-ko errailekin lotutako airetiko sarea.
3. Hiltegitik kanpoko premia-azko hilketa mota hauen lanak onartzen badira, Hiltegi-aren Autokontrolatzeko Plan-ean dagozkion jarduteko prozedurak eta erregistroak sartuko dira. Horien artean, animalia hiltegi-ara heldu den ordua eta lanean aritu den denbora jasoko dira.
4. Animalia jabeak derrigorrean eman behar duen dokumentazio-arekin batera datorrela egiaztatuko da.
5. Lanak atzerapenik gabe egingo dira hiltegi-ara heltzen denean:
 - Behia, ardia/ahuntza eta zaldia, larrutzen diren bitartean larrua identifikatuta egongo da *post-mortem* ikuskapena burutu arte. Hausnarkaria bada, gainera, buruan, belarrietan lotuta animalia-aren identifikazioa izango du.
 - Mingaina, bihotza, birikia eta gibela identifikatuko dira trazabilitatea egiteko.
 - Kanala eta erraiak kontsigna-ganberan egongo dira *post-mortem* ikuskapenera arte.
6. Hiltegi-ko Albaitari Zerbitzu Ofizialak (AZO) giza kontsumorako haragiek duten egokitasunari buruzko irizpena eman ahal izateko, honako hauek egin beharko ditu:
 - Hiltegi-ko gerentziak eskura jarri eta animalia hartzerakoan emandako dokumentazioa balioetsi.
 - Operadore ekonomikoak garraiatzeko ibilgailu-aren garbitasun- eta higiene-baldintzak, ibilgailu-aren tenperatura eta iraupena kontrolatu izana ikuskatu.
 - *Post-mortem* ikuskapena egingo du, Kontrol Ofizialeko Agiri Normalizatuan garatutako 854/2004 (EE) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, eta bereziki honako hauek hartuko ditu kontuan:
 - a) Kanalean eragina izan dezaketen ustiategi-ko odolustearen eta lanen baldintzek eta garraioko baldintzek sortu ditzaketen kutsadurak.
 - b) Istripuak eragindako lesioak edo premia-az hiltzeko arrazoiak.
 - c) Dokumentazioan ez dauden tratamendu-aren zantzuak adierazten dituzten aztarnak, susmoa edukiz gero haragian hondakinak detektatzeko laginak hartzeko beharra aintzat hartuz, eta baita beste beharrezko zehaztapen analitiko batzuk ere (bakteriologikoak, anatomopatologikoak, etab.) *post-mortem* irizpena osatzeko. AZO-ak animalia nolako baldintzetan hil den, hiltegi-aren larrutu arte igaro den denbora eta jardunbide horiek ekar

ditzaketen arrisku higieniko sanitarioak balioetsiko ditu, eta *post-mortem* ikuskapena osatzeko haragien kontrol mikrobiologikorako laginak hartuko ditu (2074/2005 Erregelamenduaren ezarpena), kontsumorako egokitasun-irizpena eman baino lehen.

- BEEen Kontrola eta Zaintzari buruzko araudia betetzen dela egiaztatzea. Animaliak 48 hilabete baino gehiago dituenen BEEen laginak hartu beharko dira.
- Harategitik kanpo egindako premiazko hilketa guztiak erregistratu. Erregistroan, hiltzeko arrazoa, kontrol gehigarriak (baldin badaude) eta azken irizpena jasoko dira.
- Giza kontsumorako egokitasunari buruzko irizpena eman. Horretarako, beste alderdi batzuen artean, honako hauek hartu beharko ditu kontuan: animalia garrario desegokiari buruz ezarritako eskakizunen betearazpena, animalia gaixotasunak, eta beste dokumentazio-alderdi batzuk. Ezin izango dira, inola ere, giza kontsumorako egokitzat jo *ante-mortem* ikuskapenik gabeko animalien haragia.

AZOk eskakizun horiek ez direla bete antzematen bada, dagokion Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzari jakinarazi eta dokumentazio guztia bidaliko dio, horrek, bere aldetik, Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari jakinarazi diezaion edo, hala balegokio, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari, dagozkion administrazio-jardunak has ditzan. Beraz, hiltegiak 4.1 puntuko C) atalean deskribatutako gaixoren bat duen animalia edo giza kontsumorako egokia ez den animalia (animalia gaixoak eta zaharrak) hilketa onartu duela egiaztatzen bada, modu honetan jardungo da:

- Hiltegiko operadore ekonomikoari baldintza horietan dagoen animaliarik ez onartzeko adieraziko zaio, onartzeko arduraduna baita, eta dagokion Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzari zehapen-espeditarearen hasiera bideratuko dio. Gainera, Aldundien Abeltzaintza Zerbitzuei eta Nekazaritza Sailari helaraziko zaie, nekazariaren erantzukizunari dagokionez, beharrezko administrazio-neurriak har ditzaten.
- Animalia lekuaketa Albaitariaren Egiaztagiriarekin egiten bada, AZOk dokumentu hau Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzara bideratuko du Aldundietako Abeltzaintza Zerbitzura edo Osasun Publikoko Zuzendaritzara helarazteko, eta horiek, Nekazaritza Sailera bidaltzeko, teknikariaren erantzukizunari buruzko neurri egokiak har ditzaten eta desegokitzat jotzen duen ziurtagiria jaulki dezaten.
- AZOk Kontrol Ofizialaren Normalizazioa EAeko Espezie Handien Hiltegiatan izeneko planean zehaztutako lan-instrukzioa aplikatuko du, kasu bakoitza balioetsiz kontsumorako egokiak diren ala ez erabaki ahal izateko.
- Giza kontsumorako egokia bada, tinta edo suarekin osasun-marka zigilatuko da, 854/2004 Erregelamenduak I. eranskineko, I. Atalaren Osasun Markari buruzko III. kapituluaren ezartzen duenaren arabera.

5. HARAGIAK MERKATURATZEKO EREMUA

Animalion haragia ikuskatu eta kontsumorako egokitasunari buruzko aldeko irizpena dutenean, hiltegitik atera eta osasun-marka jarrita duten gainerako haragien muga geografiko berberak izango dituzte.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 7an


OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN
ZUZENDARIA

Fdo.: Miren Dorronsoro Iraeta



NEKAZARITZAKO, ARRANTZAKO ETA ELIKAGAI
POLITIKAKO SALIBURUORDEA

Fdo.: Bittor Oroz Izaguirre



I. ERANSKINA

ALBAITARIAREN ADIERAZPENA Premiazko hilketatik kanpo 853/2004 (EE) Erregelamendua.			
1.- ALBAITARIAREN DATUAK			
1.1 Izena eta abizenak:			
1.2 Elkargokide zk.:			
2.- USTIATEGIAREN DATUAK:			
2.1 Titularraren izena:			
2.2 Ustiategiaren kodea:			
2.3 Ustiategiaren helbidea:			
3.- ANIMALIAREN DATUAK			
3.1 Espeziea:			
3.2 Animaliaren identifikazioa:			
4.- ANTE MORTEM IKUSKAPENA			
4.1 Ante mortem ikuskapenaren ostean, animalia GIZA KONTSUMORAKO HILTZEKO EGOKITZAT jotzen da.			
4.2 Premiazko hilketatik eragin duen koadro klinikoa:			
4.2 Animaliaren gorputzeko tenperatura:			
5.- HILKETA			
5.1 Zorabiatzeko metodoa (1)			
5.2 Odolustearen data eta ordua:			
5.3 Sabel eta hesteetako tripak kentzea:		<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
6.- ADIERAZPENA			
Behean sinatzen duen albaitariak honako hau adierazten du (2): <ul style="list-style-type: none"> • Animalia ez da tratatu baimendutako medikamentuekin • Animalia baimendutako medikamentu hauekin tratatu da: 			
Medikamentua	Medikamentua eman zaion data:	Medikamentua hartzeko epea	
(1) Iltzedun pistola zulatzailea/elektronarkosia/karbono-dioxidoa (hiltegitik kanpo premiaz hiltzeko animalia eutsi, zorabiatu eta odolusteko modua 54/1995 Errege Dekretuak arautzen duenaren arabera) (2) Egokia ez dena ezabatu			

Udalerrria:

Data:

Sinadura eta zigilua

II. ERANSKINA

USTIATEGIKO ARDURADUNAREN ADIERAZPENA Premiazko hilketa hiltegitik kanpo 853/2004 (EE) Erregelamendua.		
1.- USTIATEGIAREN DATUAK:		
1.1. Titularraren izena:		
1.2. IFZ / IFK:	1.3. Telefono zk.:	
1.4. Helbidea:		
1.5. Udalerria/herria:	1.6. Probintzia:	
1.7. Ustiategiaren kodea:		
2.- ANIMALIAREN DATUAK		
2.1. Espezia:	2.2. Jaioteguna:	
2.3. Animaliaaren identifikazioa:		
3.- GARRAIOAREN ETA HELMUGAREN DATUAK		
3.1. Ibilgailua:	3.2. Matrikula:	
3.3. Helburuko ustiategia:		
4.- ADIERAZPENA		
<p>Behean sinatzen duen abeltzaintza-ustiategiko arduradunak honako hau adierazten du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • ustiategiak ez du inolako mugimendu-murrizketarik • premiaz hildako animalia hiltegitik eramateko ibilgailuaren edukiontzia edo ontzia garbitu eta desinfektatu egin da. • animalia ez da tratatu baimendutako medikamentuekin (1) • animalia baimendutako medikamentu hauekin tratatu da: (1) (2) 		
Medikamentua	Medikamentua eman zaion data:	Medikamentua hartzeko epea
<p>(1) Egokia ez dena ezabatu (2) Hala balegokio, medikamentua, eman zaion data eta medikamentua hartzeko epea adierazi, edo animaliarik eman zaizkion tratamenduak jasotzen dituen Tratamendu-liburuaren kopia gehitu.</p>		

Ustiategiaren erregistroetan jasota dagoenaren edo legez eska daitekeen bestelako dokumentazioaren arabera.

Udalerria: Data:

Izpta.:

